

BERTSOLARITZA ETA EMAKUMEA

Hainbat bertsolari

Hitzetik Hortzera programa, 2005-05-08

Amaia Agirre Arrastoak osatutako elkarrizketa saila.

Ainhoa Agirreazaldegiren Rekondok transkribatuta.

BERRESKURATUTAKO HAINBAT GOGOETA:

Josu Goikoetxea Gezuraga:

“Gaiei heltzeko modua aldatzen ari da”.

Martin Aramendi Arana –narratzailea-:

“Profazadorak herriz herri aritzen ziren, eta nonbait ez zituzten agintarien gustuko kontuak kantatzen. Y sobre mujeres que son conocidas de revolvedoras y desvergonzadas de vecindades, y ponen coplas y cantares a manera de libelo difamatorio...”. 1453ko Bizkaiko Foru Zaharrak debekatu egin zien kantatzea. XIX. mende erdialdean eta XX. mendearen hasieran gizonezkoak soilik zebiltzan jendaurrean bertsoan”.

Imanol Lazkano Uranga:

“Bertso-eskolak tabernak zirenez eta emakumeek debekatuta zuten tabernan sartzea, ez zuten aukerarik izan bat-bateko bertsoa lantzeko”.

Martin Aramendi Arana –narratzailea-:

“Baina hainbat frogak erakusten dutenez, orduan ere baziren emakumeak bertsoak jartzen zituztenak edo bertsoan egiteko gaitasuna zeukatenak. Besteak beste, hor dauzkagu Bilintxek bertso sorta bat jarri zion Hondarribiko Joxepa, edo emakumeen alde eta beste hainbat gairen gainean bertsoak jarri zituen Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, *Xenpelar*. Harrezkero, erlijioaren inguruko bertso jarri batzuetara mugatu da emakumearen presentzia bertsolaritzan, harik eta 1986an Kristina Mardaras plazaratu zen arte”.

Andoni Egaña Makazaga:

“Bai, garai hartan uste dut sufritu zutela publikoaren ikuspegi ertsi samar bat. Ahotsa mehea zuten, ez zuten gizonezkoen arrankerik bertsoarako, eta orduan bertsolaria juzgatzen zen oso dohai maskulinoetatik, eta injustizi dextentekoa zen hori”.

Estitxu Eizagirre Kerejeta:

“Gu bertsoan hasi ginenean idatziz hasi ginen, eta oso engantxatuta geunden idatzizkora. Eta joan ginen Eskolarteko Txapelketa batera, eta hor ikusi nuen lehenengo aldiz neska bat kantuan. Eta gogoratzen naiz 8 urterekin pentsatu nuela, ‘ah, klaro, posible da neskek ere kantatzea’. Eta hurrengo pentsamendua izan zen: ‘ba, baina futbolearen bezela, umeak diran bitartean bai, bai baina gero profesionalik ez dago’. Handik urte batzuetara lehen aldiz ikusi nuen telebistan Maialen, eta orduan sortu zen nire problema, ikusi bainuen posible zela Lizasoren aldamenean neska bat egotea, eta handik aurrera ezin nuela beti idatzizkoan eta bakarrik eta nire gustuko koadernoarekin segi, aman behar nuela pausoa jendaurrean kantzeko eta bat-batean aritzeko, eta niretzako hori problema bat izan zen”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Hasieran, gaztetxotan, gure jarrera, gure estereotipoa, nahiko agresiboa zen, eta nahiko zakarra igual, erantzulea... Gogorra, hitz batean esateko. Guk hori interpretatu egiten genuen edo gu une horretan horrela sentitzen ote ginen, guk zergatik jokatu genuen horrela, bada, zaila da asmatzen.

Nik Estitxu Arozenarekin, 15-16 urte genituenean, askotan hitz egiten genuen, `gu zergatik gabiltza plazan, horrelakoak garelako, edo plazan ibiltzeko horrelakoa behar du?´”.

·Estitxu Arozena Albisu:

“Egia da, saioak egiteko-eta, garai batean aukera gehiegia ere izan genuela, neska eta nafarra izanik... Bada, mailari zegokion baino saio gehiago egitea tokatu zitzaidala, niri. Hortik gutxietsia, bada, ez. Bazekiten zuk rol bat –kasu horretan bi rol- betetzen zenituela eta ez zizuten maila handiegirik eskatzen”.

·Kristina Mardaras Sedrun:

“Nik uste dut garai hartan gehiago baloratzen zutela emakumearen presentzia, bertsoaren balorazioa baino gehiago”.

·Bertsolari Eguna. 1993-01-23 Donostia

Maialen Lujanbio:

Sinbolikoki jarri gaituzte
maskota gisa ere bai
ta borobila atera zedin
azken saioa gure zai.
Neska soileko saiorikan ez,
bagera gehiorako gai...
Gizonezkoen tarta honetan
krema ez degu izan nahi.

Iratxe Ibarra:

Erabiltzen den hizkerak ere
badu nahiko zerikusi
guk neskok kontu horretan behintzat
ez baitugu hola bizi
nahiz ta gizonak kristonak esan
beren grazi eta guzi
de puta madre geratzen zaie
ta guri berriz itsusi.

Estitxu Arozena:

Emakumeok mikrofonoan
jaso izan dugu burla
gaur ere batzuk haserre daude
ezin dute disimula.
Ni ziur nago egunen baten
erakutsiko dugula
bertsolaritzak barrabilekin
zerikusirik ez dula.

Estitxu Eizagirre Kerejeta:

“Azkenengo herrialdeetako txapelketetan 155 gizonetzok parte hartu zuten, eta emakumezkoak, berriz 23 ziren. Eta adinez 30 urtetik beherakoak ia denak. Orduan, gure generazioa da, neskak eta mutilak elkarrekin hazi gara, suposatzen da aukera berdintasunean eta 23 bakarrik plazara ateratzea ez zait iruditzen berdintasunaren sinonimo denik”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Iruditzen zait emakumeen presentzia bertsolaritzan pixka bat ohikoago bihurtzen ari dela, kopuruz ere gero eta emakume gehiago azaltzen da plazan, gu ere ohituago gaude, entzulea ere ohituago dago... Orduan irits gaitezke holako lasaitasun batera, pixka bat relajatzera, gauzak normaldu direla pentsatzera”.

Estitxu Eizagirre Kerejeta:

“Umeek txikitatik, mutilek, pilotan jokatzen dute, banaka, frontoi bete jenderen aurrean, futbolearen ere bai, gurasoen aurrean. Ikasten dute arreta bereganatzen, eta horrekin disfrutatu egiten dute. Guk goman jolasten dugunean ez daukagu publikorik”.

Andoni Egaña Makazaga:

“Mutikoa normalizat jotzen dugu, eta bertsolari gizonetzkoa normalizat jotzen dugu, baldin bada grinatsua, erasokorra, oldarkorra, ziurra...”

Estitxu Eizagirre Kerejeta:

“Guk jendaurrean noiz ikasten dugu? Eta lehiatzen ere noiz ikasten dugu? Nik behintzat ez dut uste pulamentuz ikasi dudanik, eta horretan trebatzen oso-oso berandu hasi nintzen”.

Andoni Egaña Makazaga:

“Emakumea berriz, beste balore batzuetatik epaitzen da. Ez dut ikusten zertan”.

Kristina Mardaras Sedrun:

“Nik uste dut berdintasuna etorriko dela 3 edo 4 emakumezkoekin egiten denean saio bat eta inork zalantzan jartzen ez duenean”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Eta nik uste dut gauzak aldatzen ari direla itxuraz, kanpotik normaltzen ari direla, eta gaur egun daukagun kinka dela, normaltasun itxurako honetan, normaltasun azaleko horren azpian, badaudela gauza asko aldatu beharrekoak, irauli beharrekoak...”

·Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finala, 1997-12-14 Donostia, agurra:

Andoni Egaña:

Ez da bakarrik Belodromoko
Jendetza honen disdira
bertsolaritza aurrera doa
emakumeen harira
82ko Txapelketari
jarri gaitezen begira
orduan gaitzat hartzen genitun
ta orain eurak gai dira.

Nerea Elustondo Plazaola:

“Truditzen zait emakume batek gehiago pentsatzen duela egiten duenari buruz”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“16 urterekin, eman dezagun. Neska bat, emakume bat, 16 urterekin plazara ateratzen dena. Ze konfidantza dauka neska horrek bere hitzarekin, bere hitzak izan dezakeen garrantziarekin? Bere hitza inori inportako ote zaion? Nik uste dut oso gutxietsita daukagula gure hitza eta gure hitzaren balioa”.

Estitxu Arozena Albisu:

“Nik bizi izan dudan konplejurik handiena izan da nik ba ote dudan zer erranik. Nik egiten dudan hori espektakulu bat den, edo besterik gabe edozeinek egin zezakeen”.

Amaia Agirre Arrastoa:

“Gaur egun irakasle lanetan ari naizen lekutik begiratuta, konturatzen naizena da autokonfidantza baino gehiago nabarmendu nahi eza daukatela neska gazteek. Nabarmentze horrek edo jendaurreako salto horrek sekulako bertigoa ematen diela”.

Oihane Perea Perez de Mendiola:

“Normalean ez digute erakusten jendaurrean hitz egiten, protagonistak izaten, nortasun fuertea izaten. Azken finean, oholtza baten gainean zeu epizentroa izaten”.

Oihane Enbeita Gardoki:

“Uste dut gizarte honetan jende gehiena dela onartua ez izatearen beldur”.

Kristina Mardaras Sedrun:

“Neukan beldurra zen aurretik eredurik ez neukala eta bertsotan praktikaturako ereduak eta klitxeak eta dena, gizona zirela”.

Oihane Enbeita Gardoki:

“Maila batean ulergarriena da eta normalena da erreferentziak eduki eta erreferentziei jarraitzea, baina erreferentziak sortzea da zailena. Eta erreferentzia horiek batzuek sortzen dituzte, guk jarraitu ahal izateko. Zergatik ez ditugu guk sortzen erreferentzia horiek?”

Nerea Elustondo Plazaola:

“Eta emakumeak ondo atera bazaio ere kuestionatu egingo du, eta gaizki atera bazaio auskalo zer egingo duen”.

Oihane Perea Perez de Mendiola:

“Oztopo hori gainditzen ez den bitartean, gutxi izango dira aurrera egiten duten neskak”.

Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo:

“Gizonaren diskurtso mota da oso indartsua, bestea azpian harrapatzea... Eta bertsolaritzan hori asko estimatu da beti. Baina emakumeak hori estimatu du? Agian batzuk bai, baina orokorrean ez dut uste emakumeen izaera hori izan denik, eta hori denik oraindik”.

Alaitz Sarasola Olano:

“Txapelketa bat. Nik kantatu, hobeto edo okerrago, igual dio, eta hurrengo egunean egunkarian irakurri urduri nengoela edo horrelako zerbait. Neri ez zidan graziaz egin, ze ni ez nengoen urduri”.

·Miren Artetxe Sarasola:

“Iruditzen zait ez dela kasualitatea plazetan ikusten ditugun emakumeak bereziki femeninoak, edo estereotipo femeninoa ikusten dugun bezala, bereziki femeninoak ez izatea”.

·Arantzazu Loidi Garitano:

“Eta nik hori asko zaindu dut. Berez ere ez nintzen soinekoekin-eta asko ibiltzekoa, baina giro horretara, gainera, horixe falta zitzaidan, gona motz batekin azaltzea”.

·Iratxe Ibarra Foruria:

“Guri umetan hori erakutsi ziguten, paparra atera eta altu kantatu”.

·Arantzazu Loidi Garitano:

“Nik gaingitu behar izan dudana izan da lotsati izaera, nire izaerarekin berez bat ez zetorren aktibitate batean jardutea, naturalitatez. Agian beste izaera bat izango banu...”

·Iratxe Ibarra Foruria:

“Eta neskak horretan pixka bat kikildu egin izan ohi gara normalean, ahotsa beti izan dugu finagoa, eta orduan ahots sendoagoa izan dutenek, eta kantaera ausarta, eta publikoaren aurrean pixka bat baliente jarri dena, gizonezkoen planta da azken batean, horrek agian gehiago saldu izan du”.

·Amaia Agirre Arrastoa:

“Gogoan daukat jendaurreko lehen plazak egiten hasi nintzenean etxekeok-eta esaten zidaten posturak zaintzeko, jendaurrean nengoela, señoritago, femeninoago azaldu behar nuela”.

·Arantzazu Loidi Garitano:

“Lotsagabeago azaldu izan banintz hasieratik, desparpajo gehiagorekin, gusturago arituko nintzen, eta seguru asko gutxiago sufrituta momentu askotan”.

·Unai Iturriaga Zugaza-Artaza:

“Badade balore batzuk suposatu izan direnak bertsolariarengan nahiko “arrenak” esan daitezkeenak direnak, erronkarako joera hori, eta bai, duda barik, neskak normalki sartu direnean ate horretatik sartu dira, `badira mutilak beste”.

·Nahikari Gabilondo Mendizabal:

“Gaur egun ez dut uste mari-mutil itxura hori bereziki nabarmentzen denik. Jendeak ere beste gauza batzuk eskatzen ditu, itxura zaintzea ere eskatzen du, beraz, une honetan ez dut uste aparteko garrantziarik daukanik”.

·1994-09-14 Bergara, Bertso-saioa

Imanol Lazkano:

Neronek bate eskatu gabe
gizonezko sortu nintzan
ez det ukatzen, nahikoa suerte
izan det nere bizitzan.
Ta ikusirik alaba maite
zer kezkatia zabiltzan
gizona haina izan zintezke
nahiz ta emakume izan.

Ainhoa Agirreazaldeg:

Emakumeok bazterturikan
gauzka bizitzan bertsoak
bestela ere nahiko beroak
dauzkagu gure kaskoak.
Nahiz ta zuk bota filosofada
ta sermoi luze askoak
bestei esaten ez zaitez ari
zeuk sinestu gabekoak.

Nerea Elustondo Plazaola:

“Leku batera sartu eta `uh, neskak bertsoan´. Eta zigarroa piztuz gero... Bueno, eta kopa eskatuz gero, antikristo”.

Arantzazu Loidi Garitano:

“Ez dakit nondik eta nora baina Oñatiko auzo txiki bateko jaietan, Lazkao Txiki eta ni bertsoan. Eta, ba, pentsatu. Bertso bat, eta beste bat, eta beste bat, eta beste bat... Hain gaizki ez dut pasatu sekula: nik erantzun, eta ez nintzen ohartzen berak bukatu nahi zuela. Orduan nik erantzuten nion, eta berak, ttaka, berriz. Eta atzera nik erantzun eta tapa, berak berriz. Eta, noski, bere lehia zan: `nola utziko diot amaitzen... neska batil!´”.

Alaitz Sarasola Olano:

“Kanporaketa batean ginen bertsoan. Lau mutil eta bi neska. Ta kasualitatea tokatu zan bat rubia izatea, ta ni, ba, morena. Saioa bukatu zan eta nerekin bertsoak aditzera joan ziren batzuk, ba, juxtu epai-mahaikoen ondoan tokatu, eta egia esan eskuak burua eramanda aritu ziren, aditu zuenarekin. Saioa amaitu eta epai-mahaikoek `ze, rubiak ondo kantau dik eta rubiai emango zioagu´ eta besteak berriz ondolik `hi, morena ere ondo aritu duk eta morenai emango zioagu´. Holaxe izan omen zen 20 minutuko eztabaida. Azkenean, behintzat, epaileetakoren bat, buru gehixeago zeukana, gerturatu omen zitzairen, eta, puntuazioa ere eman omen zuten saioan zehar, eta, puntuazio altuenaren arabera txapela beste norbaitek jantzi zuen. Baina bi hoiengatik izango balitz, rubia edo morena izango zen txapelduna”.

Nerea Elustondo Plazaola:

“Estanpa zan, 60ren bat gizonezko, kantukidea ere gizonezkoa, eta han zeuden emakume bakarrak kamarerak eta ni. Bazkaritan entzun behar izan nituen komentario `atsegin´denez gain, kontua zan etxe bakoitzera gonbidapen bakarra bidaltzen zutela udaletxetik, eta orduan etxe, baserri bakoitzetik kide bat joaten zen, eta kide hori gainera izaten zen gizonezkoa. Han ez zegoen aukerarik emakumerik egoteko beste hamabost urtetan. Bazkalondoan hasi ginen bertsoan eta larrutu genituen zeudenak eta ez zeudenak, eta hurrengo urterako etxe bakoitzera bi gonbidapen bidali zituzten. Handik aurrera, urtero, emakumeak ere joaten hasi dira. Hori da gure garaipen bertsoaristikoa bat”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Gaia zan `jubilatuta zinenetik askotan joaten zara mendira eta gaur ondorez sentitu zara´ edo horrelako zerbait. Kantatu nituen nire bertsoak, eta handik puska batera jendeak komentatzen zidan, `jo, aitonaen bertsoak, ze onak´ eta ez nien ulertzen, `ze aitona?´ eta `bai, Etxarrikoak`. Gero ohartu nintzen: `Nola aitona? Amona zen!´ Nik bertso horiek oso bisualki egin nituen, kantatzen nindoan ahala ikusi egiten nuen, eta niretzako egunero gure etxe aurretik pasatzen zen

andre horietako bat zen. Baina *jubilatu zinenetik* esaten zuenez gaiak... Baina, jubilatua=gizona, besterik esaten ez bada”.

Miren Artetxe Sarasola:

“Saio batera joan kantatzera, bertsotan neska bakarra, eta antolatzailearen batek ikusi eta `Hara, bertsolariak! Eta niri begiratu eta: `neska txiki hau zein dezue?’”.

Andoni Egaña Makazaga:

“Geure paperetik kanpo kantatzen dugunean, pertsonaia batena eginez, egia da pertsonaia gehienak gizonetzkoak direla, baina gizartean ere pertsonaia gehienak gizonetzkoak dira. Emakume bat denean, oso matiz gutxi azaltzen zaio emakume horri”.

Oihane Enbeita Gardoki:

“Ez gaude gaietan islatuta behar den moduan. Oraindik gizonen gaietan abesten dugu, eta izan naiz neska-laguna, ama, alaba, maitale...”

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Abusatu izan da horretaz, eta pasa izan ditugu saioak, eta saioak, eta saioak ama, neska-laguna, alaba... izaten. Alde batetik normala, eta gainera ni eroso sentitzen naiz gaietan, eta alde batetik hori normala da”.

Andoni Egaña Makazaga:

“Ez da esaten `emakume bat zara, adin ertainekoa, eta oso bidaia-zalea. Funtzionarioa´. Ea norik egiten duen ahalegina benetan paper horretan sartzeko. Emakumeak askoz ere gutxiago zehaztuta etortzen dira gaietan. Gizonetzkoa bai, gizonetzkoa izan daiteke futbolista ona, futbolista txarra edo futbolista erdipurdikoa; kardenala, Aita Santua edo fraile soila... Eta emakumea, kasu horretan ere serora bakarrik”.

Oihane Perea Perez de Mendiola:

“Orain arte ez dut horretan pentsatu baina ez litzaidake gustatuko *la chica* izatetik *la madre* izatera pasatzea”.

Nahikari Gabilondo Mendizabal:

“Gai-jartzaileen artean emakumeak sartu izanak nik uste eman diola beste ikuspegi bat zenbait gai jartzeko moduari, eta zenbait planteamenduri”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Arazoa da oholtzan emakume bat dagoenean eta neska paperak bakarrik egiten dituenen, eta sekula ez bere papera”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Nik uste emakumeen arteko umorea egin gabe dagoela, egiteko dagoela oraindik. Egiten duguna da dagoen kodigo estandarra, gizonetikoa edo gizonen artekoa imitatu. Orain, emakumeen artean umorea egitea, nik uste abenturaxo bat izango litzatekeela”.

Estitxu Arozena Albisu:

“Inpotentzia, edo soiltasuna, arazoak dira, baina horiekin umorea egiten da. Errealitate bat da: makina bat txiste daude gai horiei buruz. Eta iruditzen zait emakumeen mundu referenteez, hagitx aukera gutxi dagoela umorea egiteko. Ez da gauza bera gizon alferraren estereotipoa erabiltzea, grazia izan dezakeelako, baina emakume alferra jada ez da hain grazioso”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Askotan gertatzen dena da, koplatan hasi eta `hau halako da, hau bestelako, hau gizena, hau burusoila, honek seguru halako eta halako egin duela´... Emakume bat azaltzen da fffff, ez dakizu zer esan eta salto. `Tatata, tatata, gizona, gizona...´ Emakume bat: salto. Eta konturatu nintzenean hori egiten ari ginela, esan nuen: joder!”

Alaitz Sarasola Olano:

“Egia esan niri ez litzaidake inportako niri kantatuko balidate. Iruditzen zait era bat gehiago dela horretan indartzeko, erantzuten jakiteko. Guk ez dakigu horri erantzuten, ze ez digute esaten...!”

Maialen Lujanbio Zugasti:

Seguru asko gizonengan emakume batekin tabladuan aritzeak eragina izan du. Eta igual zenbait gauza bote-prontoan aterako litzaizkiekeenak, bi aldiz pentsatzen dituzte, ondora begiratu eta neska bat ikusita, mingarri izan ote daitekeen edo ez. Hala ere nik uste hau beraiei galdetu beharko litzaiekeela”.

Andoni Egaña Makazaga:

“Erraza da bat-batean, txalo batzuen truke, kirtenkeria bat botatzea. Hala ere, autozentsura hor daukagu, bakoitzari bere ideologiak eransten diona, eta hori gutxi balitz, emakumeak alboan edukitzeak laguntzen digu, niri behintzat laguntzen dit, nire ideologia ez traizionatzen”.

Imanol Lazkano Uranga:

“Hori, nik uste dut oraindik badagoela erreparoa, Sebastian bati edo, Agirreri edo, Joxe Lizasori edo, Txomini esango genizkiekeen gauzak esateko, itzal bat bezala sortzen digu, beharbada ez gurekin ondoan ari den bertsolariagatik, herriak nola hartuko duen kezka horregatik da hori ziur aski”.

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza:

“Markinan zen aurtan, Kontzesiotako saioan. Maialen zen atzekoei kantari, atzekoak deskribatu behar gintuen. Denek oso errespetuz erantzun zioten Maialeni. Eta nik esan nuen, `nik ez diot suabe erantzungo! Andoni balego ondoan ez nioke suabe kantatuko´. Niri esan zidan, kanpotik iluna nintzela baina barruan banuela argia. Eta nik esan nion, `interruptorea topatzen baduzu ikusiko duzu kanpotik ere nola argitzen naizen´. Konturatu nintzen berak begiratu zidala, edo eduki nuen pentsatu zuela ´qué cabrón!´”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Orain ere, emakume bat aipatzea, emakumea aipatzea, erreibindikazioa da. Homosexualitatea bezala. Markatua dena, aipatze hutsa, erreibindikatzea da. Zuk emakume bezala hartzen dezu gai bat, edo emakumetasunaren inguruko erreferentziren bat egiten duzu eta, ffffffff, ja aldarrikapen bat da, gauzak dauden bezala daudelako”.

Miren Artetxe Olano:

“Saioetan oraindik gehiengoa gizonezkoek osatzeak eragiten du nolabait gu moldatzen garela haien problematiketara, eta horiek gizonezkoen problematikak dira”.

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza:

“Bi gizonezko jarritz gero depilazioaren gainean kantari, seguru nago, azkenean emakumeen hanken gorengo partean amaituko dutela bertsoek. Eta emakumeen amaituko dute ez dakit non, min gehien ematen duen lekuan...”

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Saiotan gertatzen da. Nik hitz egin dut burusoiltzeari buruz milaka aldiz. Publiko zabal batek, gizon eta emakume, entzun dute burusoiltzeari buruz, milaka aldiz. Lehengoan aldiz, jarri ziguten gai bat depilatzeari buruz, eta hiru bertso, eta hirugarren bertsoan jada, neroni, deseroso sentitzen nintzen. Zergatik? Pentsatzen nuelako: jendea jada saturatuta egongo da *gure gaietaz*... Hori nik pentsatu nuen!”

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza:

“Ni ez nau bereziki aspertuko Maialenek edo norbaitek depilazioari buruz edo ez dakit zeri buruz hitz egiten aritzeak. Orain, emakumeari buruz hitz egiten ari garenean, garrantzitsuena da benetan depilazioa?”

Oihane Perea Perez de Mendiola:

“Egia esan ilusioa egiten dit gai horretaz –amatasunaz- kantatzeak, baina ez modu idiliko batean, baizik oholtza gainean modu natural batean”.

Alaitz Sarasola Olano:

“Mutil askok badaki oro har bere posiziotik kantatzen, eta neskok, bakarren bat uste dut salbatzen dela, ez dakigu gure posiziotik kantatzen. Eta gizarteak ezartzen digun posizio hori hartzen dugu, eta gehienetan hortxe aritzen gara, edo negarrez, edo kexaka...”.

Estitxu Arozena Albisu:

“Ezin zara beti burua jaten aritu, neska zarelako deitu dizutela pentsatuz. Deitu zaituzte zu. Zu zara neska, gaztea, nafarra, ez dakit zein lanbidetakoa, ez dakit zein bertso bota zanuena edo telebistan ez dakit zer atera zela zuri buruz... Nik uste dut zu zarela osotasun bat, eta neska izatea hor dagoela”.

Iratxe Ibarra Foruria:

“Bai, pentsatzen da, `4 neska, aibala, zer gertatzen da? Ez da martxoaren 8aren inguruko saioa... Arraroa da, zergatik ote? Zein antolatzaile edo nor izan ote da...´ Bai, geuk ere arraro hartzen dugu, arraroa delako izan ere”.

Ainhoa Agirreazaldegia Rekondo:

“Nik uste emakumeak oholtzara agertu izana denon onerako izan dela, bai bertsolarientzako, bai entzuleentzako. Hasieran arraroa izango zen, noski, gizon arteko komentarioak, edo emakume bat tartean dela egiten direnak, ikusi da ez direla berdinak izan, eta bai lexikoa, bai pentsamendua, aldatu behar izan dutela. Baina nik uste eskertu dutela, beraien ahotsa aberastu dela, eta oro har bertsolari guztien ahotsa aberastu dela”.

Nerea Elustondo Plazaola:

“Nahiz eta jakin emakume bezala deitu zaituztetela, emakume zarelako bakarrik, zure esku dago hara joan, saio txukun bat egin, eta igual hurrena deitzen zaituztenean, deitzen bazaituzte, ez dizute deituko neska zarelako bakarrik”.

Kristina Mardaras Sedrun:

“Iruditzen zait emakumeak irabazi behar duela espazio hori, eszenatoki gainean, bere kalitateagatik”.

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza:

“Eta nik uste, alde horretatik, Maialenek adibidez irabazi du errespetu bat. Ez dakidana da, emakumeenganako edo Maialenenganako den”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Egia da nire prozesua izan dela, gaztetxotan paper gogor samarra, erantzulea, gizon baten aurrean kokilduko ez den gaztetxo batena... Pixka bat paper hori hartu, eta gero niri paper hori bera estu, itogarri gertatu zitzaidanean, eta nik ere edade gehiago, eta mundu zabalago bat nire barruan, pixka bat hori azaltzeko premia izan nuenean, jo nuen estereotipo hori haustera. Baina egia da maniobra hori egiteko jendearen errekonozimendua behar nuela. Nik uste jendearen nolabaiteko errekonozimendu bat lortu nuenean, orduan egin ahal izan nuela tximeletarena”.

Oihane Perea Perez de Mendiola:

“Egitera zoazena gauza berria bada, doinu berri bat plazaratzen duzunean bezala, badakizu jendeak hasieran ez duela efusio handiarekin hartuko, baina norbaitek hasi behar du”.

Amaia Agirre Arrastoa:

“Iruditzen zait, aurrera begira lan pertsonal handia daukagula egiteko. Hausnartu ditugun gauza hauek denak irentsi, galbahea pasa, eta momentuan eta lekuan jakin behar dugula gure barrutik kantatzen gai diferenteen aurrean”.

Imanol Lazkano Uranga:

“Igual daukate erreparatu gehiegi, gizonaek bezala emakumeak tratatze horretan, eta beraiek ere lan dexente daukatela uste dut, beren buruak biharko, berdintasun horretara moldatzen”.

Arantzazu Loidi Garitano:

“Bidea da bakoitzak bere burua ezagutzea eta bakoitzak bere estiloa markatzea. Eta gero, merkatuak ere izango du zeresana”.

Miren Artetxe Olano:

“Guretik gehiago kantatzea eta estereotipo horietan ez erortzea”.

Andoni Egaña Makazaga:

“Gutxi dakigunean, baina zerbait badakigunean, eta zerbait denok dakigu, sentsibilitate minimo bat daukagunok, denok izan dugu ama, bikote-laguna, emaztea, alabak, arreba gazteak... dexentek izan ditugu. Ez dut uste gai horiek erabat arrotz zaizkigunik. Eta probatuko nuke nire burua gustura”.

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza:

“Ez gara pasatu hortik. Teorizatu egin genezake dena, baina ez gara pasatu emakume izateagatik rol batzuen gainean, eta bere gainean ironizatuz, bere inguru guztia barrez egon daitekeen kontestu horretan, gu beste aldea izatetik ez gara pasatu. Gogorra izango dela imajinatzen dut”.

Nahikari Gabilondo Mendizabal:

“Normal ikusten badugu guk ere egoera, erabat ezin da, ez delako normala, baina zenbat eta normalago ikusten dugun, iruditzen zait orduan eta normalago biziko dugula guk ere, eta errazago sartuko garela”.

Oihane Enbeita Gardoki:

“Bertsolari moduan, edo emakume moduan, baldin eta bertsoan egingo badut, ez naiz sentitzen hartzaile edo eskatzaile zentzu horretan, arduradun sentitzen naiz. Eta iruditzen zait bertsoaritzaz dela gizarte honetan dagoen fenomeno bat, aukera ematen diguna, guri, horri buelta emateko”.

Ainhoa Agirreazaldegui Rekondo:

“Espero dut guk edo gutako batzuk 40 urterekin bertsotan jarraitzea, hurrengoei eredu gehiago emateagatik”.

Maialen Lujanbio Zugasti:

“Baina orain landu behar dena bestea da: emakume horiek nola sentitzen gara edo dira plazan, jendeak nola perzibitzen du emakumea, ze arazo ditugu, baina arazo sutilak, geu ere konturatzen ez garen maila horretarako arazoak”.

Miren Artetxe Olano:

“Baina ez dago soluzio magikorik. Hori denborak egin behar du. Bertsolaritzan amona bat plazan ikusten den egunean, bertsolaritza desberdina izango da. Derrigorrez”.